



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO MAIATZAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Juan Luis Cid Conde
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita seian arratsaldeko seiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrikusten ez diren bi gai sartzea proposatzen du. Honako gai hauek proposatzen ditu:

- Lankidetzeta hitzarmena, Gipuzkoako Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Ibarra Udalaren artekoa, udal erroldaren datuak egiaztatzeko
- EH Bilduk aurkezturiko mozioa Tolosako Osasungintzaren ingurukoa

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BAKARRA: 2016ko maiatzaren 26ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai honen azterketa

- Lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko komunikazioko departamentuaren eta Ibarra Udalaren artekoa, udal eroldaren datuak egiaztatzeko
- EH Bilduk aurkezturiko mozioa Tolosako Osasungintzaren ingurukoa

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2016ko martxoaren 17an egindako ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 2.- 2016ko maiatzaren 12an egindako ez-ohiko udalbatza bilkuraren aktaren onarpena**
- 3.- 66/2016tik 150/2016ra alkate dekretuak jakinaraztea**
- 4.- HAPO (Hiritartze Antolamendu Plan Orokorra)ren hasierako onarpena**
- 5.- Gipuzkoako Urakekin Uraren kudeaketa integralari buruzko hitzarmena sinatzea onartzea eta Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzea**
- 6.- Animaliak eduki eta babesteko Udal Ordenantzaren 62. Artikuluaren aldaketa**
- 7.- EH Bilduk aurkeztu duen mozioa DBE (diru sarrerak bermatzeko errentaren) ingurukoa**
- 8.- EH Bilduk aurkeztu duen mozioa Asilo eskatzaile eta errefuxiatuen ingurukoa.**
- 9.- EH Bilduk aurkeztu duen mozioa Tolosako Osasungintzari buruzkoa**
- 10.- Lankidetzaren hitzarmena, Gipuzkoako Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazio Departamentuaren eta Ibarra Udalaren artekoa, udal eroldaren datuak egiaztatzeko**
- 11.- Galde-erreguak**

LEHENENGOA:

2016KO MARTXOAREN 17AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko martxoaren 17ko ohiko bilkurako akta.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko martxoaren 17ko ohiko bilkurako akta.

BIGARRENA:

2016KO MAIATZAREN 12AN EGINDAKO EZ- OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2016ko maiatzaren 12ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2016ko maiatzaren 12ko ez-ohiko bilkurako akta.

HIRUGARRENA:

66/2016TIK 150/2016RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2016ko martxoaren 17tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 66/2016tik 150/2016ra.

127/2016ko Alkate Dekretua ezeztatua gelditzen da Tokiko Gobernu Batzordeak hartu beharreko erabakia baitzen.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

LAUGARRENA:

IBARRAKO HAPOAREN HASIERAKO ONARPENA

AURREKARIAK

Ibarrako Hiri Antolamenduaren Arau Subsidiarioak behin betiko onartu zituen Foru Aldundiak , 1991eko otsailaren 5ean emaniko ebazpen bidez.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2004ko urtarrilaren 14ko osoko bilkurak onartu zen hirigintza planeamenduaren arau subsidiarioek berrikusteko lanen kontratazioa.

Aurrerapena eginda, 2005eko martxoaren 2ko osoko bilkuran erabaki zen jendaurrean jartzea Ibarra planeamenduko arau subsidiarioen Berrikuspen agiria eta Ingurumen eraginari buruzko Azterlana (2005eko martxoaren 9ko GAO, 46 zk) eta bi hilabetez egon zen jendaurrean alegazioak aurkez zituzten interesdunek.

2005eko martxoaren 4an Ibarra udalak eskatu zion Ingurumen eraginari buruzko azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako departamentuari.

2005eko abenduaren 26an, beharrezko kontsultak egin ondoren, erantzuna eman zioten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Ingurumen eraginaren Prozedurari buruzko kontsultari.

2005eko abenduaren 29an Ibarra Planeamenduko Arau Subsidiarioen gaineko Ingurumen eraginari buruzko txostena jaso zen Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Hasierako onarpenerako agiria eginda, udalbatzaren aldetik akordiorik ez zegoenez bertan behera gelditu zen tramitazioa.

Berriz ere, Ibarra Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikusketako prozesuari ekin zitzaion 2008 urtean. Legea aldatu zenez, aurreko prozesu guztia egokitu behar zitzaion legeri berriari.

2009ko azaroaren 24an Udalbatzak erabaki zuen Ibarra planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikustearen helburuak jasotzen dituen laburpen agiria berrestea; ingurumen organoari aurretiatzko kontsulta egitea txosten berri bat egin behar den edo 2009ko abenduaren 29koaren osagarri bat jakiteko eta, parte hartze programa onartzea.

2010eko irailean, parte hartze programaren barruan, udalerriko eragile eta erakundeekin bilera egin zen eta jendeari irekitako azalpen bilerak ere bai planaren zirriborroa azaltzeko. Ibarra biztanleek 22 kontsulta egin zituzten.

2010eko urriaren 7an Ingurumen Eraginari buruzko Ebaluazio Bateratua egiteko fasearen eta hasierako onarpenaren agiriaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Jasangarriko departamentuari eskatu zitzaion ingurumen eraginari buruzko aurretiatzko txostena egin zezan.

2010eko abenduaren 21eko osoko ezohiko bilkurak erabaki zuen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari Hasierako Onarpena ematea, eta bi urtez bertan behera uztea era guztietako onarpen, baimen edo hirigintzako lizentzia egungo Planarekin eta Arau Subsidiarioekin bat ez bazetozen.

2011ko martxoan, hasierako onarpena eman ondoren, Udaletxean sarrera eman zitzaion ingurumen organoaren Txosten Osagarriari, horrela erantzunez 2010eko urriaren 7an eskaturikoari. Helburu hau du agiri horrek: 2005eko abenduaren 26ko aurretiatzko txostena eguneratzea, indarrean dauden ingurumen babesari buruzko irizpide eta helburuak txertatuz; ingurumen organoak aldaketen inguruan duen iritzia ematea, eta ingurumen eraginari buruzko aurretiatzko azterlanean jasotako zehaztapenak egiaztatzea.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Jendaurrean hilabete egon ondoren 33 alegazio aurkeztu ziren.

2011ko maiatzaren 17an eginiko osoko bilkuran, Udalbatzak behin-behineko onarpena eman zion Ibarra Plan Orokorriari. Kontuan izan ziren behin-behineko onarpenean garrantzi gutxiko aldaketa batzuk.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren batzordeak -2011ko urriaren 20ko 4/2001 batzarra- erabaki zuen ALDEKO TXOSTENA egitea Lurralde Antolamendu, Lurzoru eta Hirigintza, Landa, Itsas eta Ur Garapenen alderdiei buruz, zenbait alderdi sartzeko baldintzarekin.

2011ko azaroaren 10ean, ingurumen batzordeak ingurumenari buruzko behin betiko ALDEKO txostena egin zuen (ALDEKO IDIA) alderdi hauei buruz: jarduketak, araudia eta edukiak. Agirian alderdi batzuk txertatu behar ziren amaierako tramiterako.

Udalbatzak, txostenak jaso ondoren 2012ko apirilaren 25ean eginiko bilkuran onartu zuen etetea planaren tramitazioa. Helburua zen plana berrikustea kontuan izanda azken datuak eta egungo egoera sozio ekonomikoa nahiz hirigintzako, horrela, IDIAN jasotako baldintzetara egokitu ahal izateko.

Udalbatzak, 2012ko apirilaren 25ean erabaki zuen HAPOn onarpen prozedura etetea.

Udalbatzak, 2013ko abenduaren 26an eginiko bilkuran erabaki zuen berriz ekitea Ibarra HAPO egiteko lanei eta tramitazioari. Helburu horrekin, laguntza, aholkularitza eta erredakzio lanak kontratatzeari ekin zitzaion eta Santi Peñalbak, Manu Arruabarrenak eta Mikel Iriondok osaturiko talde erredaktorea esleitu zen.

2014ko ekainaren 13an sinaturiko kontratuan argi zehaztu zen helburua: Ibarra Plan Orokorriaren berrikuste lanei, 2004 urtean hasitakoei, jarraipena ematea.

2014ko irailaren 18an udalbatzak onartu zuen Ibarra hiri antolamenduaren plan orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko parte hartze programa, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta hirigintzari buruzko legearen 108 art.ari jarraiki. Plan horrek lotu egiten ditu Tokiko agenda 21eko parte hartze programa eta HAPOrena, bere diagnostiko sozio urbanistikoaren fasean.

2014ko urriaren 30eko bilkuran, Udalbatzak udalerraren diagnostiko eguneratua onartu zuen eta jendaurrean jarri zuen 45 egunez.

Jendaurre aldia amaituta, 2015eko martxoaren 31n onartu zituzten kontuan izan beharreko jarraibideak HAPOn agiria eta ingurumen eraginari buruzko azterlana egiten jarraitzeko. Ondoren, hasierako onarpena eman behar zitzaion eta jendaurrean jarri.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Berriz ere, Eusko Jaurlaritzaren barne sailari eska zitzaizkion txostenak plana egitean kontuan izan beharreko arriskuei buruz eta Gipuzkoako ur Kontsortzioari baliabide hidriko nahikoa bazegoen jakiteko. Jaso ziren erantzun egokiak.

Talde erredaktorean, 2016ko martxoaren 1ean aurkeztu zuen paperan eta CD euskarrian hiri antolamenduaren plan orokorraren hasierako onarpenerako agiria gaztelaniaz.

Hasierako onarpena eman aurretik ingurumen organoari bidali zitzaion testua, horrek jakin zezan planean erantzuna eman zaiola IDIAN eskatutakoari (2011ko azaroaren 10eko behin betiko Ingurumen txostena).

Orain, 2016ko maiatzaren 10ean talde erredaktoreak berriz aurkeztu du euskaraz eta gaztelaniaz martxoaren 1eko agiri hura ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenarekin eta erantsiekin batera, udalbatzak hasierako onarpena eman diezaion.

Agiria aztertu da eta irakurri dira udal arkitektoaren txostenak.

2016ko maiatzaren 23an egindako Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Hasierako onarpena ematea Ibarra Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari. Plan hori egokitu egin beharko da I Eranskinean jasotako ondorioetara, zehazki Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean jasotako AAOOei dagokienez,

BIGARRENA: Bertan behera uztea era guztietako onarpen, baimen edo hirigintzako lizentzia egungo Ibarra Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrarekin edo indarrean dagoen hirigintzako araudiarekin bat ez badator edo horrekiko aldaketa baldin badakar. Etenaldiak bi urte iraungo du (Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 85.3 art.)

HIRUGARRENA: Jendaurrean jartzea berrogeia bost egunez , azken argitalpenetik kontaktzen hasita (argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktuz); eta argitara ematea Lurralde historikoko aldizkarian eta lurraldean zabalkunde gehien duten egunkarietan .

LAUGARRENA: Harturiko erabakia jakinaraztea sektore eskumenak dituzten herri administrazioei jakinaren gainean egon daitezen. (2/2006 legearen 90.5 art.)

BOSGARRENA:

GIPUZKOAKO URAKEKIN URAREN KUDEAKETA INTEGRALARI BURUZKO HITZARMENA SINATZEA ONARTU ETA ALKATEA HITZARMENA SINATZEKO AHALMENDU.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gipuzkoako Ur-Kontsortzioa Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean IBARRA– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Erakunde horren xedea: “sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegitura ezartzea eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera”. Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak IBARRAko udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

IBARRAko udalak, hitzarmen honen ondorioz eta Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko “goiko” eta “beheko” sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere (hitzarmena xxx eranskinean jasotzen da)

2016ko maiatzaren 23ko Hirigintzaren Batzordearen irizpena kontutan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea Gipuzkoako Ur Kontsortzio eta Ibarra Udalaren artean uraren ziklo integrala kudeatzeko hitzarmena sinatzea

BIGARRENA: Mikel Agirrezabala Alkate jauna ahalduntzea Uraren ziklo integralaren hitzarmena sinatzeko

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitzari eta Gipuzkoako Urak-eri.

ERANSKINA

URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ibarran, 2016ko maiatzaren 31an .

BILDURIK

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal andrea, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

Eta bestetik, MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA jauna, duen herri-kargua dela eta bere xehetasun pertsonalak agertzeko beharrik ez duena.

ESKU HARTZEN DUTE

Olatz Peon Ormazabal andreak, GIPUZKOAKO UR-KONTSORTZIOAREN izenean, joan den 1998ko otsailaren 20ko GAOn argitaratu ziren erakundearen Estatutuek diotenaren arabera duen ordezkaritza erabiliz.

MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA jaunak, IBARRAko udalaren izenean, alkate-lehendakaria izanik eta joan den 2016ko maiatzaren 26ean egin zen Udal-Korporazioaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera, egintza honetarako baimendua izan denak. Aipatutako erabakiaren ziurtagiria udaleko idazkariak izenpetuta hitzarmen honi eransten zaio.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Gipuzkoako Ur-Kontsortziora Gipuzkoako hainbat udalek –horien artean IBARRA– eratu duten elkarte-oinarria duen zuzenbide publikoko erakundea da. Honako hau da erakunde horren xedea: *“sare primarioetan saneamendua eta ura hornitzeko azpiegitura ezartzea eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.”*. Estatutuetako xedapen horren arabera, Kontsortzioak IBARRAko udalerrian saneamendua eta ur-horniduraren “goiko” sarearen zerbitzu publikoa kudeatzen du.

Bigarrena.- Kontsortzioaren Estatutuen 7.2. artikulua honela dio: *“hala erabakiko denean, Kontsortzioak ur-zikloaren helburuak zabal ditzake, interesa duten udalekin ados jarrita eta haiekin*
2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dagokion hitzarmena izenpetu ondoren". Kontsortzioko Batzar Nagusiak joan den 2000ko abenduaren 21ean egin zuen bileran hartu zuen erabaki hori.

Era berean, Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legeak, Udalek, horrela nahi dutenean, Hornidurako eta Saneamenduko Zerbitzua modu Kontsortzian eman dezaketela ezartzen du.

Hirugarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA toki-erakunde den aldetik, zerbitzu publikoak prestatzeko modu desberdinak erabil ditzake, beti ere, lege xedapenen arabera –Toki-jardunbidearen gaitan indarrean dauden lege-xedapenen eraberritutako Testuaren 110.5. art.– eta estatutuetako xedapenen arabera –9. art.–. Horrela, eta bere zerbitzuak kudeatzeko GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK kapital erabat publikoaz osatuta dagoen sozietate anonimoa du eratuta: GIPUZKOAKO URAK E.A.

Laugarrena.- IBARRAko udalak interes handia du URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa, bi sareen kudeaketa sartuz, "goia" eta "behea", baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere, GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN eskuan jarraitzea, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez.

Beraz, beharrezko lege eta jardute-ahalmena ezagutzen diote elkarri eta HITZARMEN hau izenpetzea erabaki dute ondorengo atalen arabera.

ATALAK

Lehenengoa.- IBARRAko udalak, hitzarmen honen ondorioz eta *Udal Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legearen* arabera, URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku, Gipuzkoako Urak, E.A.-ren bitartez, uztea erabakitzen du, honek hornidura eta saneamenduko "goiko" eta "beheko" sareen kudeaketa barnean hartzen ditu, baita beharrezko diren inbertsioak egitea ere.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

“Beheko” sarearen inbertsio jarduketak lehendik dagoen azpiegitura hartzen du, eta “goikoak” berriz, lehendik daudenak eta egiteke dauden “goiko”aren azpiegituren finantzazioa.

Horretarako, IBARRAko Udalak, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI emakida, emarien ustiapenak, azterlanak, proiektuak, sareak eta instalazioak eta kontsortziotatutako zerbitzuak emateko gainontzeko baliabide guztiak ematea erabakitzen du.

Bigarrena.- IBARRAko Udalak erabakitzen du GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN esku uztea. , zuzenbide-ordenamenduak horretarako bidea ematen duen heinean, berak dituen aginpide, eskuduntza, eskumen, ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiak, zerbitzuak eta bere xede eta jomuga diren helburuak ematearekin zerikusia dutenak .

Hirugarrena.- IBARRAko Udalak onartzea erabakitzen du, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK aurkeztutako azterlan ekonomikoa, hitzarmen honi erantsitakoa.

Horren arabera UR KONTSORTZIOAK konpromisoa hartzen du, 2016ko uztailaren 1etik hasita eta hamar urtetan, 913.240€ inbertitzea “Behe”ko sarearen hornidura eta saneamenduan eta Ibarrako udalari ordaintzea 102.495,52€ berau berritzean. Diru sarrera egiteko gehienezko epea berritzea indarrean sartzen denetik bi hilabetetako izango da.

Horrez gain, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK , GIPIIZKOAKO URAKen bitartez, urte bakoitzeko azaroan aurkeztuko ditu egindako lanak, horien atean kostuak eta hurrengo urterako inbertsio plana.

Proposatzen duen inbertsio planak Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du. Bi aldeek onarturiko planaren aldaketa nabarmenak eska ditzakete baina horiek onartzeko planaren onarpenak behar duen tramitazio berdina izan beharko du.

Edonola ere, dotazio ekipamendu publikoaren jarduerari lotutako kontsumoaren beharrak asetzeko, udalak eskatzen badu sare baten zabaltze edo aldaketa hiritartze jarduketan barruan, udalak ez du ordaindu beharrik izango sarearen zabaltze edo aldaketa horren gastu guztia. Gastu hori hitzarmen honetako inbertsioetarako ataletik ordainduko da.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hamar urterako inbertsioetarako gastua akordio honetan jasotakoa baino handiagoa baldin bada, udalak erabakiko du nola jokatu; gainera, lan horiek banaka esleitzeko ahalmena ere izango du.

Laugarrena.- GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IBARRAko udalerriko URAREN ZIKLO INTEGRALAREN kudeaketa 2016ko uztailaren 1etik aurrera bere gain hartuko du hitzarmen honetan jasotzen diren baldintzetan.

Bosgarrena.- Hitzarmen honek gutxienez 10 urteko iraupena izango du. Epe hori pasa ondoren, Udalak erabaki dezake, bere kasuan, zuzenbide-ordenamenduak une bakoitzean bide ematen dion heinean beste edozein modutara zerbitzua ematea, horretarako dagozkion erabakiak hartuz eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion urratsak emanez, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI sei hilabete LEHENAGO jakinaraziz.

Behin hasierako 10 urteko epealdia pasa ondoren, aurreko zatian aurreikusitako berariazko uko egitea ematen ez bada, hitzarmena luzatuta ulertuko da Udalak, bere kasuan, zuzenbide-juridikoak ematen dizkion eskumenaz baliatuz, zerbitzua beste modu batetara ematea erabakitzen duen arte. Hala eta guztiz ere, Udalak, bere kasuan, zerbitzua kontsortziatu eran ematea deuseztea erabakiko balu, deuseztapena baino lehen, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ordaindu beharko zaio; zenbatekoa kalkulatu da hartuaz Kontsortzioak udalerrian egindako inbertsioak eta berrikuntzak eta IBARRAko Udalari emandako kopuruak ken Kontsortzioak IBARRAn inbertsio eta berrikuntzarako jasotako kopuruak. Kontrakoa gertatuko balitz, aipatutako kopurua GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IBARRAko Udalari ordaindu beharko dio.

Seigarrena.- Zerbitzuaren tasak eta prezioak, baita udalerriko abonatuari aplikagarri diren ordenantzak, GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN proposamenez bere egunean IBARRAko Udalak onartutakoak GIPIIZKOAKO UR KONTSORTZIOKO Batzar Nagusiak urtero eguneratuko ditu, aipatutako tasen tarifa-egitura aldatu gabe.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zazpigarrena.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAK IBARRAko Udalari bermatzen dio, hitzarmen honen bitartez bere gain hartutako kudeaketagatik abonatuei eta bezeroei dagokien edozein informazioari buruzko konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna bere langileek gordeko dutela, eta batez ere, Norberaren Datuak Babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak babestutakoak direnean, datu horietara zuzenki edo zeharka sarbidea dutenean edo kontratatutako zerbitzuaren ondorioz ezagutzen dituztenean, zein hitzarmen honek irauten duen bitartean zein hitzarmena bukatutakoan.

Zortzigarrena.- Hitzarmenak izaera administratiboa du eta haren sorrera, ulerkuntza, aldaketa edo suntsiarazpenaren inguruan sor litezkeen arazoak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren aurrean konponduko dira.

Eta guztiarekin bat datoze la agertzeko, Hitzarmen hau izenpetu egiten dute, bi aletan eta ondorio bakarrarekin, esandako egunean eta tokian.

IBARRAn, 2016ko, maiatzaren 31ean

Izenp.: Olatz Peon Ormazabal An.
Gipuzkoako Ur Kontsortzioko lehendakaria

Izenp.: MIKEL AGIRREZABALA EZKURDIA Jn.
IBARRAko alkate-lehendakaria

SEIGARRENA:
ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAREN 62. ARTIKULUAREN ALDAKETA

2013ko apirilak 17an GAO 72.en zenbakian argitaratu zen Animaliak eduki eta babesteko Ibarrrako Udal Ordenantza behin betiko izaerarekin.

Kontuan hartuta animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzan jasotzen dela, 62. artikuluan, arau-hauste arinei eta larriei dagozkien zigorrak Udaleko Osoko Bilkurak ezarriko dituela.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

62. artikulua.

Zigortzeko ahalmena izateko, ezinbestekoa izango da zigor-espedienteari ekitea horretarako legeak edo bestelako arautegiek ezarritako bideei jarraituz.

Animalien babeserako 6/93 Legean araupetutako organo administratiboen eskuduntza zigortzailearen kalterik gabe, espediente zigortzaileak, Udalak, bideratuko ditu, eta arau-hausteak osolarriak direnean, eskuduntza duen Foru Organoari helaraziko dizkio. Horrek jarritako isunak udalaren diru kutxetan sartuko dira.

*Arau-hauste arinei eta larriei dagozkien **zigorrak Udaleko osoko bilkurak** ezarriko ditu. Ordenantza honetako edozein zigorezartzek ez du esan nahi zigortua erantzukizun zibiletik salbuetsia geratzen denik.*

Arau-hausteak delitu edo falta izaera baldin badu, gertatuen berri epaitegiari emango zaio eta Administrazio Organoak ez du aktuaziorik egingo. Kontuan hartuta prozedura arintzearen, bideragarriagoa dela arau-hauste arinei eta larriei dagozkien zigorrak Tokiko Gobernu Batzordeak ezarriko dituela jartzea.

Ikusirik 62. Artikuluan erro bat dagoela eta Udaleko osoko bilkurak ez dituela arau-hauste arin eta larriei dagozkien zigorrak jarri behar, prozedura arintzeko asmoarekin 62. Artikuluaren idazketa aldatu eta honakoa ezartzea proposatzen da:

*Arau-hauste arinei eta larriei dagozkien **zigorrak Tokiko Gobernu Batzordeak** ezarriko ditu. Ordenantza honetako edozein zigorezartzek ez du esan nahi zigortua erantzukizun zibiletik salbuetsia geratzen denik.*

Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzan, 62. artikuluan, arau-hauste arinei eta larriei dagozkien zigorrak Udaleko osoko bilkurak ezarriko dituela dioen lekuan Tokiko Gobernu Batzordeak ezarriko dituela jartzea. Testua honela berridazten da:

62. artikulua.

Zigortzeko ahalmena izateko, ezinbestekoa izango da zigor-espedienteari ekitea

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

horretarako legeak edo bestelako arautegiek ezarritako bideei jarraituz.

Animalien babeserako 6/93 Legean araupetutako organo administratiboen eskuduntza zigortzailearen kalterik gabe, espediente zigortzaileak, Udalak, bideratuko ditu, eta arau-hausteak osolarriak direnean, eskuduntza duen Foru Organoari helaraziko dizkio. Horrek jarritako isunak udalaren diru kutxetan sartuko dira.

*. Arau-hauste arinei eta larriei dagozkien **zigorrak Tokiko Gobernu Batzordeak** ezarriko ditu. Ordenantza honetako edozein zigorezartzek ez du esan nahi zigortua erantzukizun zibiletik salbuetsia geratzen denik.*

Arau-hausteak delitu edo falta izaera baldin badu, gertatuen berri epaitegiari emango zaio eta Administrazio Organoak ez du aktuaziorik egingo.

BIGARRENA: Jendurrean jartzea hilabetez , azken argitalpenetik kontatzen hasita (argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuz); eta argitara ematea Lurralde historikoko aldizkarian. Helegiterik ez balego, Animalien Udal Ordenantza behin- betiko onartuko da.

ZAZPIGARRENA:
EH BILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA DBE INGURUKOA

Zioa

2011ko bukaeran, Eusko Jaurlaritzak gure Gizarte Zerbitzuen prestaziorik garrantzitsuenetako bat den Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, RGI erdaraz) kobratu ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora igotzea erabaki zuen; zehazki, urtebete eskatzetik hiru urte eskatzera pasatu zen.

Horrek ekarri zuen, automatikoki, pertsona asko gure babes sistematik kanpo geratzea.

Murrizketa sozial horri aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2012ko uztailean, Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL, AGI erdaraz) sortu zuen, non prestazioa jasotzeko eskatzen den erroldatze denbora urtebetekoa den; hain zuzen ere, Patxi Lopezen gobernuak murrizketa egin aurretik, DBE kobratzeko, urteetan eskatu izan den erroldatze denbora bera.

Beste modu batean esateko, DBE urteetan izan duen erroldatze denborara itzuliko balitz, DBL berez desagertu egingo litzateke, lehen zeukan estaldura soziala berreskuratuko lukeelako.

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

DBL izeneko prestazioak izaera unibertsala dauka, hau da, baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago, berdina da nongoak diren, DBErekin beti gertatu izan den bezalaxe.

Gogoratu behar da DBLa Gipuzkoan bizi diren 1.422 familia unitatek jasotzen dutela eta familia horietan 700 haur daudela, legez babestu beharrekoak.

Foru Gobernu berriak hasieratik jarri nahi izan du zalantzan DBLa eta horretarako argudio xenofoboak erabili izan ditu, erakartze efektua (“efecto llamada” delakoa) aipatuaz, badakienean onuradun kopurua egonkortu egin dela. Foru Aldundia Marotoren bidetik abiatu da murrizketa sozialak egiten jarraitzeko eta bere jardura justifikatzeko.

Hori dela eta, Ibarra Udalarik honako mozio hau onartzeko eskatzen diogu:

- 1.- Ibarra Udalak bere babesa adierazten die Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile guztiei, inolako salbuespenik gabe; eta gogoratu nahi du gizarte ongizatea herritar eskubidea dela. Halaber, bere aitortza adierazi nahi die Gizarte Zerbitzuen langile guztiei, beraiek baitira eskubide horren bermea.
- 2.- Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utz dezala eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizkeratik desager ditzala eta prestazioa bertan behera uzteko duen asmori uko egin diezaiola.
- 3.- Ibarra Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio planteatu diezaiola Eusko Jaurlaritzari Diru sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE-RGI) jaso ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora hiru urteetatik urtebeterra pasa dezala, lehen zegoen moduan.
- 4.- Ibarra Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mozio honen hirugarren puntuan jasotakoa lehenbailehen burutu dezala.

Udalbatzak, aho-batez, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea EH Bilduk DBE inguruan aurkezturiko mozioa

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundira (Gizarte Politika) eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika sailera

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZORTZIGARRENA

EH BILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA ASILO ESKATZAILE ETA ERREFUXIATUEN INGURUKOA

EH Bilduk honako mozioa aurkezten dio Ibarra Udalbatzari, honek onar dezan:

MOZIOA

Nazioarteko erakundeek zabaldutako datuen arabera, munduan 60 milioitik gora pertsona desplazatuta bizi dira, gerrak, barne-gatazkak, eta, gero eta gehiago, klima-aldaketaren eraginek areagotutako pobrezia-egoerak direla-eta.

Nagusiki Siriako gerrak eragindako larrialdi-egoerari aurre egiteko, milaka eta milaka pertsona Europar Batasunera iritsi dira laguntza eske. Asko eta asko Mediterraneoan hil dira, Europaren atean, herriak batu beharrean, hobi komun erraldoi bihurtu den itsasoan, Europar Batasunak hegoaldeko ertzean bultzatutako politiken ondorioz neurri handi batean.

Europar Batasuna, eta estatu kideak bereziki, eskas ibili dira ez dutelako “bide segururik” ezarri, ezta pertsonak salbatzeko behar diren bitartekoak ere; gainera, asilo-eskatzaileak birkokatze kupoak ere ez dituzte bete, eta Turkiarekin akordio lotsagarri bat sinatu dute pertsonak itzultzeko. Giza Eskubideak bermatzeko gauza ez den Estatu bat ez da inoiz segurua izango gatazka-eremuetatik ihesi dabilen jendearentzat.

Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela pertsonen joan etorri askerako eskubidea berriz ere indarrean jartzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikuluan ezarritakoa betez. Eskubide humanitarioetan oinarritutako harrera-politikak abian jarri behar direla uste dugu, baita, oro har, gatazkak konpontzeko politikak sustatu behar direla ere, bitarteko baketsu eta demokratikoak erabiliz.

Horregatik, Ibarra Udalak honako mozioa onartzea eskatzen diogu:

- Asilo-eskatzaileak ez itzultzeko eta ez kanporatzeko exijitzen du, eta Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa indargabetzea eskatzen du asilo-alorrean nazioartean

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

indarrean dagoen legeriaren aurka doalako.

- Europar Batasunari eta Estatu espainolari estatu kideetan harrera-prozesua azkartzeko erreklamatzeko die, asilo-eskatzailleak hartzeko ezarritako kupoen arabera, eta Europar Batasunak eta estatu kideek pertsona horiek birkokatzeko ardura atzeratzen ari direla salatzen du.

- Udalerrri hau errefuxiatu eta asilo-eskatzailleak hartzeko prest dagoela adierazten du, eta erakundearteko akordio bat egiteko deia egiten du, pertsona horien bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren bitartekoak jarriko dituen.

Udalbatzak, aho-batez, 6 aldeko botorekin (6 BILDU) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea EH Bilduk DBE inguruan aurkezturiko mozioa

BIGARRENA: Asilo-eskatzailleak ez itzultzeko eta ez kanporatzeko exijitzen du, eta Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa indargabetzea eskatzen du asilo-alorrean nazioartean indarrean dagoen legeriaren aurka doalako.

HIRUGARRENGOA: Europar Batasunari eta Estatu espainolari estatu kideetan harrera-prozesua azkartzeko erreklamatzeko die, asilo-eskatzailleak hartzeko ezarritako kupoen arabera, eta Europar Batasunak eta estatu kideek pertsona horiek birkokatzeko ardura atzeratzen ari direla salatzen du.

LAUGARRENGOA: Udalerrri hau errefuxiatu eta asilo-eskatzailleak hartzeko prest dagoela adierazten du, eta erakundearteko akordio bat egiteko deia egiten du, pertsona horien bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren bitartekoak jarriko dituen.

BOSGARRENGOA: Erabaki hau EH Bilduri jakinarazi.

BEDERATZIGARRENA
EH BILDUK AURKEZTEN DUEN MOZIOA TOLOSAKO OSASUNGINTZAREN INGURUKOA

2016/05/26



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EH Bilduk honako mozioa aurkezten dio Udalbatzaren osoko bilkurari honek onar dezan:

MOZIOA

